



...
iruditu zitzaidan...

Maddalen Arzallus Antia

Ikusi nuenean... abestu dugu orain arte.
Baina ikusi soilik ez: entzun, usaindu, ukitu eta dastatu ere egin
genezake, bost zentzumenen bidez!

Doinua: Txankete
Kopla txikia

- | | |
|--|--|
| 1 Ikusi nuenean
zure ipurdia
iruditu zitzaidan
Kongito erdia . | 5 Usaindu nuenean
zure besapea
iruditu zitzaidan
sumo- konbatea . |
| 2 Aditu nuenean
nik zure puzkarra
iruditu zitzaidan
bonba nuklearra . | 6 Dastatu nuenean
nik zure mingaina
iruditu zitzaidan
txuleta bikaina . |
| 3 Laztandu nuenean
zure hankazpia
iruditu zitzaidan
fregona bustia . | 7 Sumatu nuenean
zure begirada
iruditu zitzaidan
zaldi- ostikada . |
| 4 Ukitu nuenean
nik zure zilborra
iruditu zitzaidan
Everest tontorra . | 8 Sentitu dudanean
nik zure bihotza
zergatik gorritu naiz?
Zergatik naiz lotsa ? |